


OMENEZ

AGUR JON ERRAMON, LAGUN ETA ADISKIDEARI



Ainbat eta ainbat urtean Euskalerrria eta euskerearen alde egundoko lana egin ondoren, agur esan dausku euskaltzale nekaezin onek.

Gizon bat ilten danean, itz eder ugari esaten dira berari buruz, euskal esaerak diñoan lez: "Ilda gero, salda bero". Baiña, Jon Erramon aitaturkeran itz eder orreik motz gelditzen dira, berak egindako lanak jakinda.

Nik "Euskerazaleak" alkartean ezagutu neban. Bertan, lanik gogorrenak egiten ebazan, alde batetik bestera euskerarentzat laguntza eske, Aldundian, Udalan, Eusko Jaurlaritzan eta beste ainbeste lekutan. Beti, ingi edo papelez beterik. Ez eban atsedetik artu gura. Lan da lan ibiltzen zan, astegunetan naiz jaiegunetan, euskereari lagundu guran.

Txeratsu artu ninduan eta beti lagun eta benetako adiskide izan zan niretzat. Aolku on ugari emonaz, euskereari gogor eusteko adoretuz eta, batez be, Euskalerriaren alde egiteko.

Euskerea, bizkaiera batez be, euki izan eban gogoan eta azken unerarte olan jarraitu izan dau eten barik.

Betiko atsedena artzeko ordua eldu jako. Bere biotza be guztiz agortuta gelditu da eta eten egin dau bere bidean.

Larogeita amairu urte ebazan Jon Erramonek il zanean. Bizitza luzea euki dau eta ia ia dana bere betiko ametsari ekiñaz: euskera eta Euskalerrria.

Goian bego lagun eta adiskide parebakoa eta mundu onetan izan ez dauan atsedena an goian aurkitu begi oparotasunez.

Laster arte.

MALAXETXEBARRIA'TAR JON

a

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena. Eskerrik asko!